

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*354/2014 FORU AGINDUA, maiatzaren 29(e)koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuen mantenimenduarengatik ordaindu beharreko tasa autolikidatzeko 050 eredua onartzen duena.*

Abenduaren 13ko 8/2013 Foru Arauak Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuen mantenimenduarengatik ordaindu beharreko tasa arautu zuen.

Foru arauak dioenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzea da tasaren zerga egitatea, kontuan hartu gabe zerbitzu horiek zuzenean eta modu espezifikoan ematea eskatzen den ala ez.

Beraz, tasa ordaintzeko obligazioa sortzen da zerbitzu horiek existitzeagatik, eta suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuei atxikitako baliabide materialak eta giza baliabideak arrisku eta larrialdi egoeretan jarduteko etengabe eskuragarri egoteagatik.

3. artikuluko 2. apartatuan ezartzen duenez, zergadunaren ordezkioak izango dira, Zergen Foru Arau Orokorreko 36. artikuluan aurreikusitako terminoetan, Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinetan sute arriskuak eta arrisku anitzeko polizak aseguratzeko dituzten entitate edo sozietateak, Donostiako udalerrian aseguraturako arriskuak direnean izan ezik.

Bere aldetik, 6. artikuluko 2. apartatuak dio zergadunen ordezkioek ordaindu beharreko kuota tributarioa hauxe izango dela: Suteen kontrako aseguru polizengatik bildutako primen 100eko 5 eta arrisku anitzeko polizengatik bildutako primen 100eko 2,5. Kasu bietan, prima horiek tasaren sortzapena Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatu aurreko lehen urtekoak izan behar dute. Donostiako udalerrian aseguraturako arriskuengatik bildutako primak kanpoan geratzen dira.

7. artikuluko 2. apartatuan jasotzen duenez, arriskuak aseguratzeko dituzten entitate eta sozietateak behartuta daude, zergadunaren ordezkio gisa, urte bakoitzeko ekainean tasa autolikidatu eta ordaintzera Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak horretarako onartzen duen eredua erabilita.

Bidezkoa da, beraz, behar den eredua onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzeagatik ordaindu beharreko tasa autolikidatu eta ordaintzeko.

Horiek horrela, hau.

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 050 eredua onartzea.*

Onarturik geratzen da 050 eredua, –Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuen mantenimenduarengatik ordaindu beharreko tasaren autolikidazioa. Zergadunaren ordezkioa– izenekoa, foru agindu honetan eranskin gisa ageri dena.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 354/2014, de 29 de mayo, por la que se aprueba el modelo 050 de autoliquidación de la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

La Norma Foral 8/2013, de 13 de diciembre, regula la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Establece la misma que el hecho imponible de la tasa es el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias que presta la Diputación Foral de Gipuzkoa, con independencia de que se solicite o no una prestación directa y específica del servicio.

La obligación de contribuir se origina, por lo tanto, como consecuencia de la existencia de tales servicios y de la disponibilidad permanente de los medios materiales y humanos adscritos a dichos servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias para actuar en situaciones de riesgo y emergencia.

Su artículo 3, en su apartado 2, designa como sustituto del contribuyente, en los términos previstos en el artículo 36 de la Norma Foral General Tributaria, a las entidades o sociedades aseguradoras de pólizas de seguros de incendio y de multirriesgo de bienes inmuebles ubicados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con exclusión de los riesgos asegurados en el término municipal de San Sebastián.

Por su parte, el apartado 2 de su artículo 6 establece que la cuota tributaria a satisfacer por los sustitutos del contribuyente será el equivalente al 5 por 100 de las primas recaudadas por las pólizas de seguro de incendios y el 2,5 por 100 de las primas recaudadas por las pólizas de multirriesgo, en ambos casos correspondientes al año inmediatamente anterior al devengo en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, excepción hecha de las recaudadas por los riesgos asegurados en el término municipal de San Sebastián.

El artículo 7, en su apartado 2, establece que las entidades o sociedades aseguradoras de riesgos, como sustitutos del contribuyente, estarán obligadas a autoliquidar e ingresar la tasa durante el mes de junio de cada año en el modelo que a tal efecto apruebe la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Procede por tanto aprobar el modelo para autoliquidar e ingresar la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud.

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 050.*

Se aprueba el modelo 050—Autoliquidación de la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Sustituto del contribuyente—, que se adjunta como anexo a la presente orden foral.

*2. artikulua. 050 eredia aurkeztera behartuak.*

1. Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinetan sute arriskuak eta arrisku anitzeko polizak aseguratzen dituzten entitate edo sozietateak daude behartuta 050 eredia aurkeztera, zergadunaren ordezkotza Zergen Foru Arau Orokorreko 36. artikuluan aurreikusitako terminoetan, Donostiako udalerrian aseguratutako arriskuak direnean izan ezik.

2. Guztiarekin ere, suteen aurkako aseguru polizak edo arrisku anitzekoak egiten dituzten entitate edo sozietateek izenpetzen badute Gipuzkoako Foru Aldundiaren suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuak mantentzeko tasa arautzen duen abenduaren 13ko 8/2013 Foru Arauak 7. artikulua 2. apartatuko bigarren paragrafoan aipatzen duen hitzarmena, izenpetutako hitzarmenaren xedatutakoari jarraikiz autolikidatu eta ordaindu beharko dute 050 eredia.

*3. artikulua. Zerga zorra aurkeztu eta ordaintzeko epea eta tokia.*

1. 050 eredia urte bakoitzeko ekainean zehar aurkeztu behar da.

2. Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 10. artikuluan eta haren hurrengoetan aipatzen dituen entitate laguntzaileetako edozeinetan aurkeztu behar da 050 eredia, eta ateratzen den zorra ere bertan ordainduko da.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2014ko maiatzaren 29a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(5010)

(5157)

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 050.*

1. Estarán obligados a presentar el modelo 050 las entidades o sociedades aseguradoras de pólizas de seguros de incendio y de multirriesgo de bienes inmuebles ubicados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con exclusión de los riesgos asegurados en el término municipal de San Sebastián, en su condición de sustitutos del contribuyente, en los términos previstos en el artículo 36 de la Norma Foral General Tributaria.

2. No obstante, las entidades o sociedades aseguradoras de pólizas de seguros de incendio y de multirriesgo que estén adheridas al convenio al que hace referencia el párrafo segundo del apartado 2 del artículo 7 de la Norma Foral 8/2013, de 13 de diciembre, por la que se regula la tasa por el mantenimiento de los servicios de prevención y extinción de incendios y de emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, deberán autoliquidar y presentar el modelo 050, de conformidad con lo que se disponga en el convenio suscrito.

*Artículo 3. Plazo y lugar de presentación e ingreso de la deuda tributaria.*

1. El modelo 050 se presentará durante el mes de junio de cada año.

2. El modelo 050 se deberá presentar, y realizar el ingreso de la deuda resultante, a través de cualquiera de las entidades colaboradoras en la recaudación de los tributos a que se refieren los artículos 10 y siguientes del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 29 de mayo de 2014.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(5010)

(5157)

 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.net/ogasuna</p> <p>*8400050052014*</p>	<p><b>Gipuzkoako Foru Aldundiaren Suhiltzaile eta Larrialdi Zerbitzuak mantentzeko Tasa</b></p> <p>Tasa por el mantenimiento de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y de Emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa</p>	<p><b>050</b></p>

ZERGADUNAREN ORDEZKOAREN AUTOLIKIDAZIOA / AUTOLIQUIDACIÓN DEL SUSTITUTO DEL CONTRIBUYENTE

<b>Identifikazioa</b> Identificación	<b>IFZ</b> NIF	<b>Deiturak eta izena edo sozietate izena</b> Apellidos y nombre o razón social				<b>Sortzapena</b> Devengo	<b>Ekitaldia / Ejercicio</b>  <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>
	<b>Zerga helbidea</b> Domicilio fiscal		<b>Zk.</b> Núm.	<b>Solairua</b> Piso	<b>Telefonoa</b> Teléfono		
	<b>Udalerrria</b> Municipio		<b>Posta kodea</b> Cód. Postal	<b>Probintzia</b> Provincia			

<b>Likidazioa</b> Liquidación	<b>Sortzapenaren aurreko urtean jasotako aseguru primen zenbatekoa</b> Importe de las primas de seguro correspondientes al año anterior al devengo			<b>Ehunekoa</b> Porcentaje	<b>Kuota</b> Cuota
	<b>Sute Aseguruen Primak</b> Primas de seguros de incendio		5		
	<b>Arrisku anitzeko aseguru primak</b> Primas de Seguros Multirriesgo		2,5		
	<b>KUOTA, GUZTIRA</b> TOTAL CUOTA				

Administrazioaren Alea / Ejemplar para la Administración

<b>Data</b> Fecha .....	<b>Subjektu pasiboaren sinadura</b> Firma del Sujeto Pasivo
----------------------------	--

<b>Ordainagiria</b> Justificante de ingreso	<b>Ordainketa-gutuna / Carta de pago</b>		
	<b>Zigilua eta sinadura / Sello y firma</b>	<b>Entitatearen gakoa / Clave entidad</b>	<b>Data / Fecha</b>

 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.net/ogasuna</p> <p>*8400050052014*</p>	<p><b>Gipuzkoako Foru Aldundiaren Suhiltzaile eta Larrialdi Zerbitzuak mantentzeko Tasa</b></p> <p>Tasa por el mantenimiento de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y de Emergencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa</p>	<p><b>050</b></p>

**ZERGADUNAREN ORDEZKOAREN AUTOLIKIDAZIOA / AUTOLIQUIDACIÓN DEL SUSTITUTO DEL CONTRIBUYENTE**

<b>Identifikazioa</b> Identificación	IFZ NIF	Deiturak eta izena edo sozietate izena Apellidos y nombre o razón social			<b>Sortzapena</b> Devengo	<p>Ekitaldia / Ejercicio</p> <table border="1" style="width: 100px; height: 20px;"> <tr> <td style="width: 25px; height: 20px;"></td> <td style="width: 25px; height: 20px;"></td> <td style="width: 25px; height: 20px;"></td> <td style="width: 25px; height: 20px;"></td> </tr> </table>				
	Zerga helbidea Domicilio fiscal		Zk. Núm.	Solairua Piso			Telefonoa Teléfono			
Udalerrria Municipio	Posta kodea Cód. Postal	Probintzia Provincia								

<b>Likidazioa</b> Liquidación	<p>Sortzapenaren aurreko urtean jasotako aseguru primen zenbatekoa</p> <p>Importe de las primas de seguro correspondientes al año anterior al devengo</p>			<p><b>Ehunekoa</b> Porcentaje</p>	<p><b>Kuota</b> Cuota</p>
	<p><b>Sute Aseguruen Primak</b> Primas de seguros de incendio</p>		<p><b>5</b></p>		
	<p><b>Arrisku anitzeko aseguru primak</b> Primas de Seguros Multirriesgo</p>		<p><b>2,5</b></p>		
	<p><b>KUOTA, GUZTIRA</b> TOTAL CUOTA</p>				

Interesatuaren alea / Ejemplar para el interesado

<p><b>Data</b> Fecha .....</p> <p style="text-align: center;"><b>Subjektu pasiboaren sinadura</b> Firma del Sujeto Pasivo</p>
---

<b>Ordainagria</b> Justificante de ingreso	<b>Ordainketa-gutuna / Carta de pago</b>			
	Zigilua eta sinadura / Sello y firma	Entitatearen gakoia / Clave entidad	Data / Fecha	Zenbatekoa / Importe